

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2182

AGINDUA, 2017ko apirilaren 24koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira 2016-2017 ikasturteko Batxilergoko Sari Bereziak.

Batzilergoko Sari Nazionalak arautzen dituen uztailaren 13ko EDU/2058/2010 Aginduaren xedea da Batxilergoko Sari Nazionalak sortzea Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan –Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez aldatua– zehazten diren batxilergoko modalitateetako edozein aprobetxamendu bereziz burutu duten ikasleak saritzeko. Gainera, haren laugarren artikuluan xedatzen duenez, Batxilergoko Sari Bereziak iragarri eta eman ahal izango dituzte eskumeneko hezkuntza-administrazioek, dagokien eskumenen eremuetan.

Otsailaren 19ko 166/2013 Dekretuak –martxoaren 15eko 35/2011 Dekretua aldatzen duena– Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko Sari bereziak arautzen ditu, eta horiek emateko eskakizunak ezartzen. Proba urtero deituko dela xedatzen du dekretu horrek, eta urteroko deialdiak nola gauzatu behar diren ere azaltzen du.

Hezkuntza Sailaren xedea da 2016-2017 ikasturtean Batxilergoko ikasketak ibilbide akademiko bikainarekin burutzen dituzten ikasleen esfortzua eta lana aitortu eta sustatzea.

Horretarako, eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren proposamenari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2016-2017 ikasturteko Batxilergoko Sari Berezien deialdia onartzea, agindu honen oinarriekin bat.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Prozedurari dagokionez agindu honetan arautu gabeko kasuetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritz, deialdiko parte-hartzaileek baimena

ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Batxilergoko Sari Bereziak izeneko fitxategian sartuko dira datuok, diru-laguntzen deialdi hau eta, hala badagokio, Batxilergoko Sari Nazionalak kudeatzeko, baita deialdira biltzen direnei deialdiaren bilakaeraren berri emateko ere. Fitxategi horren arduraria Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak du. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak baliatzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 24a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2016-2017 IKASTURTEKO BATXILERGOKO SARI BEREZIEN
DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

Lehenengoa.– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– 2016-2017 ikasturteko Batxilergoko Sari Bereziak iragartzen dira, deialdi honetan ezarritako baldintzetan.

Bigarrena.– Eskakizunak.

1.– Batxilergoko Sari Berezia eskuratu ahal izateko, eskakizun hauek bete beharko dituzte ikasleek:

a) 2016-2017 ikasturtean, batxilergoko edozein modalitatetako bigarren maila EAeko zentzoren batean eginda eta gaindituta izatea, aurrez aurre edo urrutitik.

b) Ikasleek batxilergoko bi ikasturteetan gutxienez 8,75 puntuko edo gehiagoko kalifikazioa izatea, batez beste. Batezbesteko nota izango da kontatzen duten 1. eta 2. mailako ikasgai bakoitzean lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa, ehunen gertuenera biribilduta, eta distantzia berean egonez gero, handienera jota.

Hirugarrena.– Sarien kopurua.

1.– 2016-2017 ikasturtean, 15 Batxilergoko Sari Berezi deituko dira EAEn.

2.– Batxilergoko Sari Berezia eskuratzen dutenek horen egiaztagiria jasoko dute. Gainera, Hezkuntza Sailak antolatzen duen bidaiaprograman parte hartu ahal izango dute, ingelesezko ikastaroak atzerrian egiteko, dagokion deialdian zehaztutakoaren arabera.

3.– Sari Berezia lortzen duten ikasleak Batxilergoko Sari Nazionala jasotzeko hautagai izan daitezke, baldin eta aurrez horretarako izena ematen badute eta, gainera, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Estatuko Idazkaritzaren Ebazpenean ezarritako eskakizunak betetzen badituzte.

Laugarrena.– Izena emateko prozedura eta epea.

1.– Batxilergoko bigarren mailari dagokion azken ebaluazioko saioa egin ondoren, eta ikasleei azken kalifikazioak jakinarazi eta gero, ikastetxeek agindu honetan ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzen dituzten ikasleei informazioa emango diete Batxilergoko Sari Bereziara aurkezteko aukerari buruz.

Deialdi honetan aurreikusitako data eta jardueren egutegia I. eranskinean jasota dago.

2.– Agindu honen bigarren oinarrian xedatutako eskakizunak betetzen dituzten eta Batxilergoko Sari Berezia eskuratzeko hautagai izan nahi duten ikasleek, izena eman nahi badute, «on line» eskabidea aurkeztu beharko dute beren ikastetxeko idazkaritzan, II. eranskineko ereduari jarraituz, Hezkuntza Administrazioak horretarako prestatutako duen aplikazioaren bidez.

Ikasle bakoitzak dagokion ikastetxearen idazkaritzan aurkeztuko du eskabidea, behar bezala sinatuta, eta hark sarrera-erregistroa emango dio.

3.– Hautagai bakoitzak sinatutako eskabidea eta ikastetxeko zuzendariak behar bezala bete eta sinatutako agiri akademikoa dagokion ikastetxeko idazkaritzan gordeko dira, probako Epaimahaiaren eskura. Epaimahai horrek dokumentazio hori eskatu ahal izango du, bai probak egiten diren bitartean, bai probak amaitu ostean.

4.– Desgaitasunen bat duten ikasleek proba egiteko egokitzapenen bat behar badute, II. eranskinean aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

5.– Izena emateko epea amaitu eta hurrengo egunean, ikastetxe bakoitzak iragarki-taulan argitaratuko du izena eman duten ikasleen zerrenda.

6.– I. eranskinean adierazitako egunean, Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da onartutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrenda, eta baztertutako kasuan adieraziko da horren zergatia eta zer epe dagoen balizko akatsak edo adierazi gabeko datuak zuzentzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua araberera.

7.– Egon litezkeen akatsak edo adierazi gabeko datuak zuzentzeko epea bukatu ostean, zeinak Epaimahaiko buruari bidaliko baitzaizkio, Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da onartutako ikasleen behin betiko zerrenda, bai eta, hala badagokio, baztertutako ikasleena ere, erabaki hori zergatik hartu den adierazita.

8.– Sarituren batek agindu honetan jasotako eskakizunen bat betetzen ez badu, saria galduko du, eta sari hori puntuaziorik altuena lortu duen hurrengo hautagaiari emango zaio.

Bosgarrena.– Proben edukia eta balioestea.

1.– Batxilergoko Sari Berezirako hautagaiek, proba euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dute, eskabidean eskatutakoari jarraituz.

Honako hau izango da probaren egitura:

Lehenengo zatia:

Modalitateko berezko nahitaezko irakasgaia: idatziz ebaztea batxilergoko 2. mailako modalitateko berezko nahitaezko irakasgaiaren edukiei buruzko galderak edo ariketa praktikoak; izena emateko II. eranskinean jasota egongo da irakasgai hori.

Bigarren zatia:

a) Gaztelania ala euskara: gai orokor bati buruzko testu bati buruzko idazlana edota iruzkina; testua zientifikoa edo literarioa izango da, gaztelaniaz edo euskaraz idatzia (parte-hartzaileak izena emateko eskabidean adierazitako aukeraren arabera).

b) Atzerriko hizkuntza: gai orokor bati buruzko testu baten gaineko idazlana edota iruzkina; testua zientifikoa edo literarioa izango da, eta batxilergoko 2. mailan nahitaezko irakasgai gisa ikasitako atzerriko hizkuntzan idatzita egongo da. Hiztegiarik gabe egingo da ariketa, dagokion hizkuntzan.

2.– Honako hau balioetsiko da ariketetan: erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituraketa, hiztegia egokitasuna, eta hizkuntzaren zuzentasuna.

3.– Epaimahaiak ez dio aukerarik emango hautagaiari aurrez izena emateko inprimakian aukatutako irakasgaiak edo proba-aukerak aldatzeko.

4.– Probako ariketa bakoitza 0tik 10era bitarteko puntuekin balioetsiko da, bi hamartarrekin gehienez ere. Probaren azken kalifikazioa honela kalkulatu da: lehenengo zatiko ariketan (modalitateko nahitaezko irakasgaia) lortutako kalifikazioa bider bi, gehi bigarren zatiko ariketetan lortutako kalifikazioen batura.

5.– Saria eskuratzeko aukera izateko, ariketa bakoitzean gutxienez 5,00 puntu lortu beharko dute hautagaiek, eta 32 puntutik gorako kalifikazio orokorra.

6.– Proban kalifikaziorik altuena lortzen duten hautagaiei emango zaizkie sariak.

7.– Berdinketarik egonez gero, lehenengo, bigarren eta hirugarren ariketetan eskuratutako puntuazioa hartuko da kontuan, ordena horretan. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da; epaimahaiko presidentek emango du horren berri.

8.– Ariketak anonimoak izango dira, eta dagozkion neurriak hartu beharko ditu Epaimahaiko buruak hori bermatzeko.

9.– Deialdi honetan, honela banatuko da ariketak egiteko denbora:

Ariketak	Iraupena
Lehenengo zatia	90 minutu
Atsedena	30 minutu
Bigarren zatia	120 minutu

Seigarrena.– Probak egitea.

1.– Proba, EAerako bakarra, I. eranskinean adierazitako egoitzan, egunean eta orduan egingo da.

2.– Proba egiteko, hautagaiek beren NAN, AIZ edo beste egiaztagiri bat ekarri beharko dute, baita probak egiteko behar diren tresnak ere, III. eranskinean ezarritakoaren arabera.

3.– Hala eta guztiz ere, Epaimahaiak komenigarria dela iritziz gero, aurreko puntuak zabaltzen dituen informazio gehigarriaren berri emango du Hezkuntza Sailaren web-orrian.

4.– Proba egin aurretik, Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko dira ariketa bakoitzaren ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak.

5.– Deialdi honi buruzko informazioa web-orri hauetan jakinaraziko da: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus, Ikasleak–Batxilergoko Sari Bereziak atalean, edo www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/akademik

Zazpigarrena.– Kalifikazioak argitaratzea.

1.– Parte-hartzaileek beren notak ikusi ahal izango dituzte horretarako prestatutako aplikazioaren bidez, NANaren zenbakia erabilita gako gisa, eta haren iraungitze-data pasahitz gisa.

2.– Epaimahaiak Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko ditu behin-behineko kalifikazioak, I. eranskinean adierazitako egunean.

Egon litezkeen alegazio edota akatsak zuzendu ostean, Hezkuntza Sailaren web-orri berean argitaratuko dira behin betiko kalifikazioak eta saritzeko proposatutako hautagaiak.

3.– Epaimahaiak sari-kopuru jakin bat proposatuko du guztira (deialdi honetan adierazitakoa, gehienez ere).

Zortzigarrena.– Erreklamazioak.

1.– Ikasleek edo haien legezko ordezkariak, ikasleak adingabeak izanez gero, egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Epaimahaiko buruari, I. eranskinean ezarritako epean.

2.– Erreklamazioek arrazoituak izan beharko dute, eta Hezkuntza Administrazioak deialdi hau kudeatzeko sortutako aplikazioaren bidez egin beharko dira.

3.– Erreklamazio-eskaera eragin duten ariketak berrikusi egingo dira, ziurtatzeko galdera guztiak ebaluatu direla eta horretarako ebaluatzeko irizpide orokorrak eta zuzentzeko berariazko irizpideak ongi aplikatu direla. Gainera, azken nota kalkulatzeko akats materialik ez dagoela egiaztatuko da.

Bederatzigarrena.– Ebazpena.

1.– Deialdia Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ebatziko du, Epaimahaiak proposatuta. Baldin eta eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean ez bada ebazpenik jakinarazten, eskaerak ezetsizat jo daitezke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Ebazpen horren aurka, gorako errekurtoa jar dezakete interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

I. ERANSKINA

JARDUEREN EGUTEGIA. 2016-2017 IKASTURTEA

Maiatzaren 1. hamabostaldia	2016-2017 ikasturterako Batxilergoko Sari Bereziak deitzen dituen Agindua argitaratzea EHAAn
Maiatzaren 30etik - ekainaren 1era, biak barne	Hautaprotetan parte hartuko duten ikasleen izena ematea Hezkuntza Sailaren web-orriko aplikazioan
Ekainaren 2a	Probetarako onartutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrenda argitaratzea Hezkuntzaren web-orrian
Ekainaren 5era (10:00ak arte)	Alegazioak aurkeztea probetarako onartutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrendaren kontra
Ekainaren 7a	Probetarako onartutako eta baztertutako ikasleen behin betiko zerrenda argitaratzea
Ekainaren 12a	Gelen eta eserlekuen zerrenda
Ekainaren 13a	<p>Proba egitea:</p> <p>Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa Urkixo zumarkalea z.g. 48013 Bilbao</p> <p>Ordutegia:</p> <p>Deia: 15:00 Lehen zatia: 15:15 - 16:45 Atsedena:..... 16:45 - 17:15 Bigarren zatia:... 17:15 - 19:15</p>
Ekainaren 22a	Behin-behineko kalifikazioak argitaratzea <ul style="list-style-type: none"> o Norberaren noten kontsultak
Ekainaren 26ra arte (10:00ak arte)	Alegazioak aurkeztea behin-behineko kalifikazioen kontra
Ekainaren 30a	Behin betiko kalifikazioak argitaratzea <ul style="list-style-type: none"> o Kontsulta pertsonalizatua <p>Ikasleak saritzeko proposamena</p>
2017ko uztaila	Hezkuntza Berriztatze zuzendariaren ebazpena EHAAn

2017ko maiatzaren 3a, asteazkena

II. ERANSKINA

IZENA EMATEKO ORRIA

DATU PERTSONALAK

<input type="checkbox"/> NAN:		Jaiotze-data: uu/hh/ee:	
<input type="checkbox"/> AIZ:		Sexua	<input type="checkbox"/> G <input type="checkbox"/> E
<input type="checkbox"/> Bestelakoa:			
Abizenak:			
Izena:			
Helbidea (kalea):			
Zk.:	Solairua:	Letra:	LH:
Udalerrria:		PK:	Telefono finkoa:
Sakelako telefonoa:		Posta elektronikoa:	

EGINDAKO IKASKETAK

Zer ikastetxetan amaitu dituzu Batxilergoko ikasketak?		
LH:	Udalerrria:	PK
Batxilergoko 2. mailan ikasitako Atzerriko Lehen Hizkuntza		<input type="checkbox"/> Ingelesa <input type="checkbox"/> Frantsesa <input type="checkbox"/> Alemana
Egindako Batxilergoko modalitatea		Zientzia eta Teknologia Giza eta Gizarte Zientziak <input type="checkbox"/> Giza Zientziak <input type="checkbox"/> Gizarte Zientziak Arteak

HIZKUNTZA EGITEKO PROBA

<input type="checkbox"/> Gaztelania
<input type="checkbox"/> Euskara

MINUSBALIOTASUNIK EDUKIZ GERO, AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

<input type="checkbox"/> Minusbaliotasun-ziurtagiria
<input type="checkbox"/> Irizpen tekniko-fakultatiboa
<input type="checkbox"/> Orientazio-zerbitzuaren txostena eta Berritzegunearen txostena
<input type="checkbox"/> Beste mota bateko egokitzapen bat (denbora eta bitartekoak). Zehaztu:

[Oharra: atzeko aldean jarraitzen du]

LEHENENGO ZATIRAKO IKASGAIK

MODALITATEKO / IBILBIDEKO BEREZKO IKASGAIA ADIERAZI (Batxilergoko 2. mailan eginda)		Zientziak	Giza Zientziak	Gizarte Zientziak	Arteak
	Matematika II	x			
	Latina II		x		
	Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II			x	
	Artearen Oinarriak II				x

PROBAKO BIGARREN ZATIRAKO AUKERATUTAKO IKASGAIK

A ariketa	B ariketa
<input type="checkbox"/> Gaztelania <input type="checkbox"/> Euskera	<input type="checkbox"/> Ingelesa <input type="checkbox"/> Frantsesa <input type="checkbox"/> Alemana

AITORTZEN DU

ikastetxean amaitu dituela Batxilergoko ikasketak 2017. urtean, eta **batez besteko nota 8,75 edo handiagoa** izan dela.

ESKABIDEA egiten du 2016-2017 ikasturteko Batxilergoko Sari Bereziak eskuratzeko probetan parte hartzeko, eta AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datu guztiak egiazkoak direla.

.....(e)n, 2017koren (e)(a)n.

AITA, AMA EDO LEGE-TUTOREA
(Ikaslea adin txikikoa bada soilik)

INTERESDUNA

Izpta.:

Izpta.:

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, sarien deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetxean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Batxilergoko Sari Berezia» izeneko fitxategi batean sartuko dira deialdi hau kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduradun. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak betetzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo behar da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen baimena ematen diote Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren egiaztatzeko beste erakunde publiko batzuetan.

[Oharra: ikastetxeko idazkaritzan utzi behar da paperezko dokumentu hau, ikasleak behar bezala izenpetuta eta dagokion sarrera-erregistroarekin, agindu honetan araututako proben epaimahaiaren eskura]

III. ERANSKINA

AZTERKETA EGITEKO JARRAIBIDEAK ETA ZEHAZTAPENAK

Erabateko puntualtasuna eskatzen da.

Matrikula egin eta gero, ezingo da irakasgairik aldatu.

Ikasle bakoitzak gela bat eta jarleku-zenbaki bat izango du, eta bertan egingo du azterketa. Gelan sartzean, bere jarlekua eta zenbakia zein diren esango zaio. Hori izango da bere lekua azterketa osoan zehar, probaren bi zatietan.

Ikasleak bere nortasun-agiria (NAN, pasaporte, egoiliarren txartela...) mahai gainean ezarri beharko du, eta ikusgai egongo da probak dirauen artean.

Lehenengo ariketa hasi baino lehen, ikasleri bere datu pertsonalak, zein irakasgaitan matrikulatuta dagoen eta ariketa bakoitzean erabili beharko duen kodea jasotzen dituen orri bat emango zaio. Azterketaren orrian, espazio bat dago kode horrentzat. Akatsen bat atzemanek gero, ikasleak BEREHALA jakinarazi beharko dio Epaimahaiari.

Tinta beltzarekin edo urdinarekin egin behar dira ariketak, Epaimahaiak kontrakorik adierazi ezean.

Probaren konfidentzialtasuna bermatzeko, ezingo da izena idatzi ez inongo identifikazio-seinalerik utzi azterketa-orrian, salbu aipatu identifikazio-kodea, harentzako gordetako lekuan. Jarraibide hori ez betetzeak hautagaia baztertzea ekarriko du.

Nahiz eta azterketa zurian itzuli, identifikazio-kodea ezarri beharko du. Azterketa hasi eta 15 minutu igaro arte, ezingo da ikasgelatik atera. Ariketa bakoitzaren hasierako 15 minutuak iragan eta, ez zaio inongo ikasleri sartzen utziko, Epaimahaiko buruak baimentzen dituen salbuespen-kasuetan izan ezik.

Azterketaren bigarren zatian, hizkuntza ofizialeko ariketak –euskara/gaztelania– eta atzerriko hizkuntzakoak aparteko orrietan egin beharko dira.

Probaren irakasgai bakoitzaren berezko ezaugarriek dagokienez, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- **Gaztelania, Euskara eta Atzerriko Hizkuntza:** ezin da hiztegirik erabili.
- **Matematika II eta Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II:** kalkulagailu zientifikoa eta marrazketarako tresnak (erregela, konpasa...) erabili ahal izango dira.
- **Latina II:** hiztegia erabili ahal izango da, gramatika-gehirrik gabe.
- **Artearen Oinarriak II:** ez da berariazko inongo materialik behar proba egiteko.

Probaren atal bakoitza amaitu eta gero, ikasleak eskua altxatuko du, eta Epaimahaiko arduradunen batek azterketetan erabilitako orri guztiak (zirriborroak barne) jaso eta gelatik ateratzeko baimena eman arte itxarongo du. Azterketa zurian uzten bada ere bete behar da jarraibide hau.

Erabat debekatuta dago informazioa biltegitatu edo erreproduzitu dezaketen telefono mugikorrek eta tresna elektronikoak erabiltzea; kanporatzeko arrazoi izango da horiek erabiltzen saiatzen hutsa.

Ariketetan jarraitu beharreko etika-, errespetu- eta ordena-arauak betetzen ez dituen probatik baztertzeke legeko gaitasuna du Epaimahaiak. Baztertzeak irakasgai guztietan 0 kalifikazioa ateratzea dakar berarekin.

Berlaratze-justifikagiri bat eskatu ahal izango dio ikasleak Epaimahaiari.

OHARRA: saria eskuratzeko aukera izateko, ariketa bakoitzeko kalifikazioa 5,00 puntu edo gehiagokoa izan beharko da, eta 32 puntu baino gehiago lortu beharko dira probaren kalifikazio osoan. Ikasleren batek zurian itzultzen badu ariketa bat, 0 kalifikazioa emango zaio, eta, ondorioz, saria eskuratzeko aukera galduko du.

2017ko maiatzaren 3a, asteazkena

IV. ERANSKINA
 BATXILERGOKO SARI BEREZIAK
 ONARTUTAKO ETA EZ ONARTATUKO IKASLEEN ZERRENDA

Deialdia:

Ikastetxea

Deialdian xedatutako eskakizunak betetzen dituzten eta Batxilergoko Sari Bereziak eskuratzeko hautaprobetan izena eman duten ikasleen zerrenda.

NAN	Abizenak	Izena	Onartua/Ez onartua	Zergatia

.....(e)n,(e)koren 201.....(e)an

Zuzendaria (sinadura eta ikastetxeko zigilua)